

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Nafarroako hedabideak diru-laguntzarik gabe

GARAI BATEAN Nafarroako euskarazko hedabideek 300.000, eta 400.000 euro ere, jaso izan zituzten. Zifrek goitik behera egin dute. 2008an, 240.000 eurokoa izan zen laguntza, 300.000 aurreikusita bazeuden ere. Aurten inor gutxik sinetsi zezakeena prometituz Euskarabideak zuzendari Xabier Azanzak: hasieran esandako 9.567tik 240.000ra igotzea diru-laguntza. Ez bata eta ez bestea. Gobernuak diru-laguntza blokeatu du. Hona Topaguneak bere webgunean (www.topagunea.org) idatzitako oharren zati bat: “Nafarroako Gobernuak bigarren urtez blokeatu du euskarazko hedabideontzako

diru-laguntzetarako gordeta zegoen partida. Euskarabideak uztailan agindutako 240.000 euroko diru-partida ezerezean gelditu da, Nafarroako Gobernuaren baitako Institutuak ez duelako deialdia garaiz argitaratu. Ez 240.000 eta ezta 9.567 ere, Euskarabideak egoera zuzendu ezean, Nafarroako gizartearen eskariari erantzunez euskarazko informazioa lantzen dugun hedabideok ez dugu euro bakar bat jasoko aurten”.

Xabier Azanzak ondokoak esan zituen ARGIAK urtarrilean egindako elkarrizketan: “Iaz krisiaren ondorioz 310.000 euroko aurrekontua 240.000ra jaitsi zen moduan, espero dezagun, lehenbailehen, gai izan gaitzela, 9.000koa 300.000ra igotzeko, edo 150.000ra edo 400.000ra. Baina azkar izan dadila

eta azkar banatzeko aukera izan dezagula, hedabideak ez daitezen urte osoan dirurik izango den ala ez jakin gabe egon”.

Urrezko Maskorra euskaraz azpituatuta

POZ EDERRA hartu dut Lu Chuan zuzendari txinatarraren *City of Life and Death* filma euskaraz ikus daitekeela irakurri dudanean. Bizi ibili dira gero Luistxo Fernandez eta Eli Laztanguren. Beharbada, biziegi, filma ez da eta estreinatu oraindik...

BAHEA

[SOS Veleia taldeak Iruña-Veleiako auzia argitzearen aldeko manifestua idatzi du. Hona pasarte bat:](#)

“Behean sinatzen dugun pertsonok pentsatzen dugu ez dagoela behar bezala frogatuta grafitoen faltsutasuna, eta benetakoak izatea ere litekeena dela iritzirik, ondorengo eskatzen diegu auzian erabakimena dutenei: piezek hasierako egoeran jarraitzen dutela konproba dezatela, grafitoen analisi eta ikerketa zientifiko berriak egitea agin dezatela, eta parteekin zerikusirik ez duten arkeologo entzutetsuek indusketa kontrolatuak egin ditzatela aurrez seinalatutako lekuetan”.

[Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako presidenteari El País-en esanak Gobernuak aurkeztutako inkesta soziolinguistikoa:](#) “Ez da txosten bat, zehaztasun gutxi inkesta baizik. Inork ez daki nola egin den. Gobernuak eskatutako inkesta soziolinguistikoa da (...) Legea ez da aldatu behar azterketak hala esaten duelako. UPNk ez du aldatu nahi, eta ez du nahi Gobernuan gaiari buruzko iritzia desberdinak egotea. Azterketan esanak esan, bi alderdi nagusiak (UPN eta PSN) hau bezalako gai garrantzitsuen inguruan bat etorri behar dira”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso [hari@DOAN](mailto:hari@doan.ez) e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Alakrana: esku hartze militarra eragotzi

Azken orduko aldaketarik ez badago, astea bete da pirata somaliarren talde batek Indikoan Alakrana atun-ontzia bahitu zuela. Bahiketa honek, 2008ko Playa de Bakio-koak bezala, euskal arrantza sektorearen egoera larria agerrarazten du. Alturako flotan dabilzan 1.140 arrantzale inguru etxetik urrun ibili behar dira arrantzan beren 64 ontziekin. Horietatik, 25 atun-ontzi izozkailuetan lan egiten dutenak 629 dira, Alakranan bahituta dauden 36ak barne. Bahiketa Indikoan gertatu da, Euskal Herritik milaka kilometrotara, bizitzeko ahal duten tokian egin behar dutelako arrantza, beste herrialdeetako milaka ontziekin lehiatuz. Bahiketa egin dutenak, aldiz, gerran eta gosez dagoen herrialde bateko kide dira, Somalia.

Bahiketa hori kudeatzeko ardura dutenek –Espainiako Gobernu– hainbat gauza eduki beharko lituzkete kontuan. Alakranan familia duten 36 arrantzale daude, eta beren erreskatea lortu behar da modu ahalik eta garbienean. Senideek eskatu dute erreskatea ez dadila indarrez izan; edozein interbentzio militar hilgarria suerta liteke denentzat: tripulazioarentzat eta piratentzat. Ondorioz, muturreko egoera horretan, negoziazioa gailentzen da, eta ordua iritsiz gero, erreskatearen ordainketa. Bizitza edozeren gainetik dagoela errepikatzeaz nekatzen ez direnak, izan daitezela kontsekuente. Ez dezatela jarraitu ETArek beste bahiketa batzuetan praktikaturiko politikarekin, esanez “terroristekin” ez dela negoziatzen. Zeren eta, kasu honetan, arrantzaleek euren bizitza gal dezakete. Eta baita “piratek” ere. Euskal politikariek, bahituekin eta familiekin solidarioak direla esaten badute, egin dezatela lan bide horretan.

Juan Mari Arregi